



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



BERDINTASUNAREN ALDEKO  
DONOSTIAKO EMAKUMEEN KONTSEILUA  
CONSEJO DE LAS MUJERES DE  
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN POR LA IGUALDAD

Berdintasun eta Lankidetzeta Atala  
Sección de Igualdad y Cooperación

Ijentea, 6 - Tel. 943481471 - 943481413 - Faxa 943481843 - [www.donostia.org](http://www.donostia.org)  
20003 Donostia-San Sebastián

## **EMAKUMEEN ETXEARI BURUZKO 7. HAUSNARKETA-JARDUNALDIAREN AKTA**

### **7/2011 BILERA AKTA**

Eguna: 2010eko ekainaren 4a  
Ordua: 16:00  
Tokia: Gobernu Batzarraren gela

#### **BILDUTAKOAK:**

- ✓ Emakumeak eta Hiria foroa (ordezkari 1)
- ✓ EHUko Gizarte Kontseilua (1)
- ✓ Plazandreok (1)
- ✓ Medeak (1)
- ✓ Dandai (1)
- ✓ Plazandreok eta Emakumeak eta Hiria foroa (1)
- ✓ Intxaurreondo Berri (2)
- ✓ Asade (1)
- ✓ Emakumeak eta Hiria foroa (1)
- ✓ Norberaren izenean etorriak (3)
- ✓ Lagunak (1)
- ✓ AA (1)
- ✓ Hizkuntza-normalizazio, Berdintasun eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria (1)
- ✓ Zinegotziaren aholkularia (1)
- ✓ Berdintasun teknikariak (2)

#### **EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK:**

- ✓ Gipuzkoako pertsona gorren elkarteak (1)
- ✓ Emakumea-La Mujer (1)

Zinegotziak hitza hartu du eta aztergaien hurrenkera aldatu izanaren zergatia azaldu du lehenbizi. Jardunaldiaren amaieran aztertuko dira Emakumeen Etxeari buruzko prentsako eztabaida, Batzorde Iraunkorraren bilera eta ASADE elkarte sindikalaren arazoak.

Gai-zerrendari eta bilerari buruzko azalpenak eman ondoren, gaiak aztertzeari ekin diogu.

### **1. Aurreko balorazioen laburpena.**

Seigarren hausnarketa-jardunaldiko balorazioen azalpena egin da. Balorazioak positiboak dira jardunaldiko edukiei, planifikazioari eta metodologiari dagokienez. Puntu gutxien elkarteen parte-hartzeak jaso ditu eta, aldiz, puntu gehien, elkarteei parte hartzeko aukera izan izanak. Asaderen ordezkariak adierazi du hori gertatzen dela elkarte batzuei, bertan izan arren, parte hartzea kosta egiten zaielako besteek baino okerrago egiteko beldurragatik.

### **2. Azken bilkura bitarte erdietsitako akordioen errepasoa.**

Gune horren helburu nagusia, jardunbideak, printzipioak, zerbitzuak eskaintzeko irizpideak, eginkizunak, zerbitzuak, proiektuak, jarduerak eta funtzionalitatea (ikusi Power Pointa).

### **3. Kogestioari eta hitzarmenei buruzko proposamenen aurkezpena.**

Berdintasun Atalak kogestioari eta hitzarmenei buruzko proposamen bat prestatuko zuela erabaki zen 2010eko apirilaren 30eko bileran, eta, halaber, elkarteei gonbidapena egin zitzaizen gaiari buruzko gogoeta egiteko eta beren proposamena prestatzeko. Proposamen bakarra jaso da, Emakumeen Etxeko Elkarteara. Proposamen hori, Berdintasun Atalaren proposamenarekin batera, posta elektronikoz bidali da, eta horrez gain, bileran direnei banatu zaie.

Kogestio-ereduari eta hitzarmenei buruzko bi proposamen daudela esan da bileran. Bata, Berdintasun Atalarena, eta, bestea, Emakumeen Etxeko Elkarteara.

Zinegotziak aurkeztu du Berdintasun Atalak proposatutako kogestio-eredua eta hitzarmenak, eta Plazandreoek, Emakumeen Etxeko Elkartearen proposamena. (*ikus kogestio laukia*).

Bi proposamenen arteko alde nabarmenena elkarte mugimenduak kogestio-organoan duen ordezkari-tza da. Berdintasun Ataletik kogestio-organoa honela eratzea proposatzen da: Emakumeen Etxeko Elkartearen ordezkari bat, Emakumeak eta Hiria Foroaren ordezkari bat eta Kontseiluaren ordezkari bat. Emakumeen Etxeko Elkartetik, ordea, Emakumeen Etxeko Elkarteak hiru ordezkari izatea proposatzen dute.

Elkarte mugimenduak kogestio-organoan ordezkari-tza izateko Berdintasun Atalaren proposamena justifikatu du zinegotziak eta alderdi hauen garrantzia azpimarratu du:

- Emakumeen Etxea errebindikatzeko Kontseiluak eta Foroak urte hauetan guztietan egin duten lana azalratzea edo ageriko egitea.
- Foroak zein Kontseiluak, parte hartzeko esparru gisara, beren gai propioak lantzen dituzte, eta beren ekarpenak egin diezazkiokete Emakumeen Etxeari.
- Parekotasunaren garrantzia

Organigrama etxea martxan jarri bitartean sortzen diren premien arabera moldatzen joateko aukera eta, hitzarmenei dagokionez, autonomiaren elementuak duen garrantzia azaldu ditu zinegotziak, denbora igaro ahala egoera aldatu egin daiteke eta elkarteen, udalaren eta ordezkaritza politikoaren artean.

Plazandreekek esan du elkarteen ez zitzaizela bururatu Foroak eta Kontseiluak kogestio-organoan ordezkaritza izatea. Esparru horiek ordezkaritza izatearen garrantzia azpimarratu du, lan handia egin baitute Emakumeen Etxearen alde.

Nabarmendu da, funtsean, emakume berak direla esparru ezberdinetan lanean.

Bi azalpenen ondoren, gai hauek eztabaidatu dira:

- *Kogestio-organoko elkarte-ehunaren iraunaldia eta ordezkaritzaaren izaera izenduna*

Asadek nabarmendu du garrantzitsua dela lehentasuna lanean urte gehien daramatzatzenen parte-hartzeari ematea.

Medeak esan du ordezkaritza izenduna ez bada, aukera ematen dela bilera bakoitzera jende desberdina joateko eta ezertaz ez jabetzeko.

Zinegotziak adierazi du ordezkitzen duenari esleitu behar zaiola “*nominaltasuna*” eta azaldu du hori guztia barne araudian zehaztu behar dela.

- *Batzar Nagusia eta Emakumeen Etxeko Elkartearen Batzarra definitu beharra eta bi esparru horietan zeinek parte har dezakeen zehaztu beharra.*

Asadek esan du batzarrera bakoitza bere izenean joaterik izan behar lukeela iruditzen zaiola.

Zinegotziak esan du Batzar Nagusira edozein joan badaiteke, bitxi samarra suertatuko dela. Batzarrerako araudi bat prestatu beharra azpimarratu du.

Zinegotziaren aholkulariak argitu du batzarrean parte hartu ahal izango luketela Foroan parte hartzen dutenek, Kontseiluan parte hartzen dutenek, bazkide direnek eta beren izenean doazen beste emakume batzuek.

Plazandreeken iritziz batzarrean bazkideek parte hartu behar dute.

Bileran den beste batek esan du bazkideek ez ezik, aldeko edo jarraitzaileek ere parte hartu behar luketela.

Asadek esan du barne araudian jaso behar litzatekeela Emakumeen Etxearen esparru ideologikoan sartzan ez denak ezin duela parte hartu.

- *Kogestio-organoko elkarte mugimenduaren ordezkaritza*

Ordezkaritzarik handiena Emakumeen Etxeko Elkarteak izan behar duela irizten dio Emakumeak eta Hiria Foroak. Esan du, azkenean, Foroan zein Emakumeen Etxeko Elkarrean

eta Kontseiluan, emakume berek parte hartzen dutela. Uste du EEEk izan behar duela solaskide bakarra administrazioaren aurrean.

Plazandreak eta Emakumeak eta Hiria Foroaren ordezkariak dio Foroaren eta Emakumeen Etxeko Elkartearen ibilbideak alderatuta normala dela Emakumeen Etxeak ordezkariak txikiagoa izatea. Azpimarratu du Foroak eta Kontseiluak gizartearen sostengua dutela eta Emakumeen Etxeko Elkartea jaio berria dela.

Zinegotziak azpimarratu du garrantzitsua dela Foroa eta Kontseilua aintzatezea eta ageriko egitea bakoitzak bere gai espezifikoak lantzen dituelako eta era horretara gai horiek kogestio-organora eramane ditzaketelako. Horrez gain, negoziatzeko orduan, funtsezkoa iruditzen zaio hiru esparru horiek ordezkariak egotea, pertsona berak izan arren, hiru esparru desberdin direlako. Ordezkariak, parte-hartze esparruko batekoak edo besteak izan, EEEko bazkide izan behar dute. Sinbolikoki bidegabea iruditzen zaio ez Foroa eta ez Kontseilua ordezkariak ez egotea etxearen hasieran.

Bileran den batek zehaztu du elkarte mugimenduko edo parte-hartzeko hiru erakunde zehaztu gabeetako hiru ordezkari izan zitezkeela.

Medeak oso gogoko du ordezkariak EEEko hiru kiderekin osatzea baina ez du baztertzen Foroa eta Kontseilua ere ordezkariak egotea. Hortaz, proposatzen du EEEko hiru ordezkari izatea, baina horietako bat Forokoa eta bestea Kontseilukoa izatea. Gauzak zeinen izenean borrokatuko diren plantatu da orduan.

Plazandreaki egokia iruditzen zaio Berdintasun Atalaren proposamena. Ordezkariak EEEko bazkide izan behar dutela uste du. Uste du kogestio-organoren osaketa urtean behin berrikusi behar litzatekeela, hori etxearen barne araudian jaso behar litzatekeela, elkarte mugimenduak hiru ordezkari izatea ere barne araudian jaso behar litzatekeela eta kogestio-organoren osaketa paritarioa izatearena ez litzatekeela aldatu behar.

Emakumeak eta Hiria Foroaren iritziz, Kontseiluak ez du EEEen parte hartzeko interes handirik izan eta, beraz, kogestio-organoko ordezkariak EEEkoa izan behar du.

Zinegotziaren aholkulariari garrantzitsua iruditzen zaio ordezkariak EEEko bazkide izatea, bai eta Foroa eta Kontseilua ageriko egitea.

Zazpigarren hausnarketa-jardunaldian parte hartzen duten gainerako guztiei egokia iruditzen zaie Berdintasun Atalaren proposamena.

Bileran **erabaki** hauek hartu dira:

- **KOGESTIOARI** buruz:

### **Kogestio-organoren osaera**

Kogestio-organoa kide hauek osatuko dute:

- **Udalaren hiru ordezkari.**
- **Elkarte mugimenduaren hiru ordezkari**, hau da, **foroaren ordezkari bat, kontseiluaren ordezkari bat** eta **Emakumeen Etxeko Elkartearen ordezkari bat.**

- **Emakumeen Etxeko koordinatzailea (ahotsarekin eta botorik gabe).**

**Kogestio-organoan elkarte mugimenduaren ordezkari diren kide guztiek Emakumearen Etxeko elkarteko bazkide izan behar dute. Elkarte mugimenduko kideen ordezkartza urtero berrikusiko da, txandaka parte hartzea sustatze aldera.**

### **Nola hartu erabakiak kogestio-organoan**

Zinegotziak bozketa sekretua proposatu du. Nabarmendu du boto haztatuak ez duela balio; gehiengo soilez izan behar du.

Aholkulariaren iritziz adostasuna ez da bideragarria, botoa eman behar da eta autonomia errespetatu behar da.

Plazandreak eta Emakumeak eta Hiria Foroaren ordezkariari ez zaio bideragarria iruditzen autonomia.

**Erabaki da etxeko barne araudia idazteaz arduratuko denak gai hauek lantzeaz arduratuko dela: KONTSENTSUA, BOTAZIOA eta AUTONOMIA kogestio-organoan erabakiak hartzeko orduan.**

- **HITZARMENEI** buruz

### **Nola antolatu hitzarmenak**

Zinegotziak azaldu du hiru alderen arteko hitzarmenak kudeaketa zailtzen eta autonomia mugatzen dituela aldeetako bat zirikatzen hasten bada.

Plazandreak EEEren proposamenaren alde egiten du, betiere, aldeetako batek hitzarmenean egon nahi ez badu, autonomia izatekotan.

Plazandreak eta Emakumeak eta Hiria Foroaren ordezkariaren iritziz hitzarmen batzuk estrategikoak dira eta hiru alderen artekoak izan behar lukete. Estrategikoak zein diren zehaztu behar litzateke.

Aholkulariari ere beharrezkoa iruditzen zaio hitzarmen estrategikoak zein diren eta zergatik diren zehaztea. Alde hiruko hitzarmenek legitimitatea dutela uste du.

Zinegotziak aipatu du bere ustez unibertsitate-munduarekin, udalaz gaindiko departamentuekin... sinatutakoak izan litezkeela estrategikoak.

Dandairen ordezkariari iruditzen zaio liskarrak izanez gero, gaia kogestio-organora eraman behar litzatekeela, hura izango da eta etxerako hoberena zer den erabakiko duena.

Zinegotziak esan du ez zaiola egokia iruditzen horrenbesteko kontrola ezartzea eta autonomia horrela mugatzea. Bi aldeko hitzarmena ez litzateke eragotzi behar, baina kogestio-organoan aztertu behar litzateke.

### **Erabakiak:**

- **Hitzarmen guztiak kogestio-organora eraman behar dira onarpena emateko.**

- **Hitzarmen estrategikoeak hiru aldekoak izan behar dute ahalaz. Hitzarmen estrategikoeak zein diren zehaztu behar da.**
- **Aldeen autonomia (adostutako esparruaren barruan).**

Halaber, **barne araudiaren, batzar nagusiaren eta kogestio hitzarmenaren zehaztapena Berdintasun Ataletik lantzea erabaki da.**

Zinegotziak adierazi du Okendon, eraikinaren goiko aldean, lau bat lagun geratuko direla irailera arte eta, beraz, orain behealdeak birmoldatzen hasiko dira, han inor ez dago eta. Gainerakoa txukuntzen irailaren 1ean hasiko dira. Irailaren erdialdean inauguratzea espero da.

Hurrengo jardunaldian gai hauek aztertuko dira, eta ordurako prestatuta egongo dira:

- Lortutako akordioak
- Okendorako zerbitzuak eta hitzarmenak
- Komunikazio plana
- Hedapena eta inaugurazioa

Amaitzeko, prentsan, Emakumeen Etxearen gainean, sortu den eztabaida politikoa azaldu du zinegotziak. Plazandreekeek Batzorde Iraunkorarekin egindako bilerari buruzko azalpenak eman ditu, eta Asaderen ordezkariak, ASADEn arazoei buruzkoak. Azken gai hori Kontseilura eramatea proposatu du Juanak.

**Emakumeen Etxeari buruzko hurrengo hausnarketa-jardunaldia: uztailaren 9an, 16:00etan.**

Bilera 20:05ean bukatu da.

Donostia, 2010eko ekainaren 17a